

Hauteskunde
Sindikalak

94

ENPRESA KOMITEERAKO HAUTESKUNDE ARAUTEGIA

*EUSKAL HERRIKO ENPRESA KOMITEETARAKO
HAUTESKUNDE SINDIKALEI BURUZ JAKIN BEHAR
DUZUNAZ JABETZEKO INFORMAZIO BULETINA*

T E X T U
L E G A L A K

LAB
langile abertzaleen batzordeak

1994.eko UZTAILA

s a k o n t z e n

3

Zbkia

SKT00005

DOKUMENTAZIO
ZENTROA

ZABAL
IZEN

Hauteskunde
Sindicalak
94

**ENPRESA
KOMITEETARAKO
HAUTESKUNDE
ARAUDIA**

**T E X T U
L E G A L A K**

ERIKS
KOMITET
HÄR
ARADIA

AURKIBIDEA

1. KAPITULUA

HAUTESKUNDE-MUGAPEA	7
1.- HAUTESKUNDE-MUGAPE MOTAK.....	7
2.- HAUTESKUNDE-MUGAPEA OSATZEN DUTEN LANGILE KOPURUAREN KALKULUA ORGANO MOTAK ETA AUKERATU BEHARREKO ORDEZKARI KOPURUA ZEHAZTEKO.....	8
3.- LANGILE KOPURUAREN ARABERA HAUTESKUNDE-MUGAPE BAKOITZARI DAGOZKION ORDEZKARI KOPURUAK ETA MOTAK.....	9
4.- HAUTESKUNDE KOLEGIOA.....	9

2. KAPITULUA

HAUTESLEAK ETA HAUTAGAIK	11
1.- HAUTESLE IZATEKO BALDINTZAK.....	11
2.- HAUTAGAI IZATEKO BALDINTZAK.....	12

3. KAPITULUA

KANDIDATURAK	13
1.- KANDIDATUREK BETE BEHARREKO BALDINTZAK ENPRESA BATZORDEETARAKO HAUTESKUNDEETAN.....	13

4. KAPITULUA

HAUTESKUNDEEN PROMOZIOA	15
1.- HAUTESKUNDEAK GARATZEKO LEGITIMATUTAKO SUBJEKTUAK.....	15
2.- PROMOZIOA ZUZENTZEN ZAION SUBJEKTUA.....	16

3.- ERAGILEEN ELKARTETZA.....	16
4.- PROMOZIOAREN ARRAZIOAK	17
5.-PROMOZIOAREN UNEA	18
6.- PROMOZIOAN KONTUTAN IZAN BEHARREKO DATAK.....	18
7.- PROMOZIOAREN EDUKINA ETA FORMA.....	19

5. KAPITULUA**ENPRESA KOMITEETARAKO HAUTESKUNDE PROZESUA..... 21**

1.- HAUTESKUNDE MAHAIAREN ERAKETA.....	21
2.- BOTAZIO DATAREN EZARKETA.....	22
3.- ENPRESARIAK LAN-ZENTSUA HAUTESKUNDE MAHAIARI BIDALTZEA.....	23
4.- HAUTESKUNDE ZENTSUA EGITEA MAHAIAREN ALDETIK.....	24
5.- HAUTESKUNDE ZENTSUAREN ARGITARATZEA	24
6.- HAUTESKUNDE ZENTSUAREN KONTRAKO ERREKLAMAZIOA.....	24
7.- HAUTESLE ZERRENDA BEHIN-BETIKOAREN ARGITARATZEA ETA HAUTATU BEHARREKO ORDEZKARIEN KOPURUA ZEHAZTEA.....	25
8.- KANDIDATUREN AURKEZPENA.....	25
9.- HAUTESKUNDE KOLEGIOEN ERAKETA	25
10.- HAUTAGAIEN ALDARRIKAPENA	26
11.- HAUTAGAI ALDARRIKAPENEN KONTRAKO ERREKLAMAZIOAK.....	26
12.- HAUTESKUNDE PROPAGANDA	26
13.- BOTAZIOA	27
14.- BOTU KONTAKETA PARTZIALA.....	27
15.- KONTAKETA GLOBALA.....	28
16.- EMAITZEN ESLEIPENA	28
17.- KONTAKETA AKTA ETA EMAITZEN ESLEIPENA EGITEKO MODUA	31
18.- AKTAK ADMINISTRAZIOARI IGORTZEA.....	31

6. KAPITULUA**HAUTESKUNDE-PROZESU BEREZIAK
DITUZTEN SEKTOREAK..... 33**

1.- MARINA MERKANTEA.....	33
---------------------------	----

2.- ARRANTZUNTZIEN FLOTA.....	33
7. KAPITULUA POSTA BIDEZKO BOTUA.....	35
8. KAPITULUA HAUTESKUNDE-PROZESUAN EGINDAKO ERREKLAMAZIOAK.....	37

HAUTESKUNDE-MUGAPEA

HAUTESKUNDE-MUGAPEAK (edo HAUTESKUNDE-UNITATEAK) langileak elkartzea suposatzen du, hauek, langileak, hauteskunde-prozesu baten bidez ordezkari batzuk aukera ditzaten. Hauteskundeak bultzatu nahi dituen edonoren lehenengo eginbeharra hauteskunde-mugapeen kopurua zehaztea da.

1.- HAUTESKUNDE-MUGAPE MOTAK

1.1.- **ENPRESA** (Lantegi bat bakarrik denean (LEko 62.1 art.)).

1.2.- **LANTOKIA** (Enpresak lantegi bat baino gehiago dituenean (LEko 62.1 eta 63.1 art.ak)).

1.3.- LANTOKI-ELKARKETA

1.3.1.- Enpresak probintzia berean edo probintziarekin muga egiten duten herrietan bi edo lantegi gehiago dituenean, eta lantegi bakoitzean langileen kopurua 50 langiletara iristen ez denean, baina lantegi horiek elkartuta kopuru horretara iristen direnean Enpresa-batzorde bateratua osatuko da (LEko 63.2 art.).

Adibidea:

1. Zentroa = 40 langile.
2. Zentroa = 44 langile.
3. Zentroa = 35 langile

Hauteskunde-mugapea hiru zentroek osatuko lukete, 119 langilerekin.

1.3.2.- Probintzia bereko lantoki batzuek 50 langile dituztenean eta beste batzuek ez, lehenengoetan enpresa-batzorde propioak osatuko dira eta beste guztien artean beste bat (LEko 63.2 art.).

Adibidea:

1. Zentroa = 100 langile.
2. Zentroa = 500 langile.
3. Zentroa = 25 langile.
4. Zentroa = 40 langile.

3. zentroa eta 4.a elkartu egingo dira eta 65 langilez osatutako hauteskunde-mugape bat osatuko da.

1.4.- **BUKEA**. (Lantoki mota bat (LEko 1.5 art. eta 1311/86 E.D.ko 17. artikulua).

1.5.- **FLOTA**. (Enpresa bereko itsasuntzien elkarketa da, itsasuntzi bakoitzeko langile-

kopurua 50era iristen ez denean (1311/86 E.D.ko 17. art.)

***ZEHAZTAPENAK:**

• Lantoki hitzaren kontzeptu generikoa LEko 1.5 artikuluan dator: «lan agintariaren aurrean alta eman eta antolamendu espezifikoa duen ekoizpen-unitatea»; 1311/86 E.D.ko 4. artikulua.

Komenigarria da hau eta lana egiten den lekua ez nahastea, batzuetan gauza bera izango da, baina beste batzuetan ez.

• Enpresa batean eta aldi berean hauteskunde-mugape ezberdinak eman daitezke. Adibidez: 10 itsasuntzi dituen enpresa bat (horietako batean 49 langile baino gehiagok egiten dute lana) eta lehorrean lantoki bat. Kasu honetan 3 hauteskunde-mugape genituzke:

- 49 langile baino gehiago dituen itsasuntziak osatuko luke bat.
- Gainontzeko itsasuntziek osatuko lukete beste bat.
- Lehorreko dependentsiak (lantoki bat osatuko dute) osatuko luke hirugarrena.

2.- HAUTESKUNDE-MUGAPEA OSATZEN DUTEN LANGILE-KOPURUAREN KALKULUA ORGANO-MOTAK ETA AUKERATU BEHARREKO ORDEZKARI-KOPURUA ZEHAZTEKO.

HAUTESKUNDE-MUGAPEKO LANGILE-KOPURUA=

LANGILE FINKOEN KOPURUA

+ LANGILE FINKO ALDIZKAKOEN KOPURUA

+ INOIZKAKO LANGILEEN KOPURUA (URTEBETE BAINO GEHIAGOKO KONTRATUA)

+ INOIZKAKO LANGILEEN KOPURUA (GEHIENEZ ERE URTEBETEKO KONTRATUA)

* Inoizkako langile-kopurua (bataz beste urtebeteko kontratua) = lana egindako egun-kopurua/200. (Koziente hori inoizkako langileen kopurua baino handiagoa denean hauen, langile-kopurua, kopurua kontatzen da).

Adibidea: Enpresa batean 100 langile finko, 25 langile aldizkako finko, 25 inoizkako langile urtebeteko baino luzeagoko lan-kontratuarekin eta 100 inoizkako langile urtebetera iristen ez den lan-kontratuarekin ari dira lanean. Guztira 4.000 egunetan egin dute lana. Hauteskunde-mugapea osatzen duten langile-kopurua ondorengoa da:

100 langile finko

+ 25 langile finko aldizkako

+ 25 inoizkako langile urtebeteko baino luzeagoko kontratua dutenak

+ 4000/200 = 20

GUZTIRA 170

Beraz, 9 lagunez osatutako enpresa-batzordea aukeratzea dagokie.

*** ZEHAZTAPENAK**

• Arauketa legala LEko 62., 63. eta 72. artikuluetan eta 1311/86 E.D.ko 8.4 artikuluan formulatzen da.

• Estatutuko 72.2 artikuluan lana egindako egunak/200 ordezkari-kopuruari bakarrik badagokio ere, era berean aplikatu behar da hauteskunde-mugapea zehazteko eta zeintzuk diren aukeratu beharreko organo-motak (ordezkariak eta komiteak) jakiteko.

• Urtebetez azpiko lan-kontratuak duten inoizkako langileek lana egindako egun-kopurua hauteskunde-deialdia baino urtebete lehenagoko denboraldiari konputatu behar zaio (1311/86 E.D.ko 8.4 art.). Deialdi-data promozioa egin den datatzat hartu behar da.

• Lana egindako eguntzat lana egindako egunak eta lan-eternaldiak (igandeak, jai-egunak, oporrak) hartu behar dira.

3.- LANGILE-KOPURUAREN ARABERA HAUTESKUNDE-MUGAPE BAKOITZARI DAGOZKION ORDEZKARI-KOPURUAK ETA MOTAK.

LANGILE-KOP.	ORDEZKARI-KOP.	ORGAMO-MOTA
50-100	5	enp.-batz. edo zent.
101-250	9	«
251-500	13	«
501-750	17	«
751-1000	21	«
1001-2000	23	«
2001-3000	25	«
3001-4000	27	«
4001-5000	29	«

Hortik gorako kopuruetarako gehitu 2 ordezkari 1.000 langileko edo zatikako; dena den gehienez ere 75 ordezkari aukeratu ahal dira.

* ZEHAZTAPENAK

1.- Arauketa legala LEko 63., 63., 65., 66. eta 71 artiluetan eta 1311/86 E.D.ko 8.4an ezartzen dira.

4.- HAUTESKUNDE-KOLEGIOA

Hauteskunde-kolegioa hauteskunde-mugapearen subdibisio bat da eta horren bidez hautesleak eta hautagaiak kategorian profesionalaren arabera biltzen dira, ordezkarien aukeraketa ezberdina eginez.

Hauteskunde-kolegioak osatu ahal izateko beharrezkoa da:

1.º 50 langile edo gehiago izatea, edo gauza bera dena, aukeratu beharreko organoa enpresa-batzordea izatea. (Delegatuen kasuan kolegio bakar bat izaten da). (LEko 71 art.ko 32/84 Legea).

2.º Tekniko eta administrariaren kategorian profesionalak izatea alde batetik, eta bestetik espezialistak eta ez-kualifikatuak izatea (LEko 71. art.ko 32/84 Legea).

3.º Ondoren zehazten den koizientea 0,5 edo handiagoa izatea. Koiziente hori 0,5 baino baxiagoa baldin bada kolegio bakar bat osatuko da (1311/86 E.D.ko 8.3).

ORDEZKARI GUZTIEN KOPURUA x HAUTESKUNDE KOLEGIOKO LANGILE-KOPURUA

HAUTESKUNDE-MUGAPEKO LANGILE-KOPURU OSOA

Adibidea:

Enpresa batean 200 langile daude (beraz, 9 ordezkari aukeratzeko dira), 191 administrari eta tekniko eta 9 espezialista eta ez-kualifikatuak. Kasu honetan ez dira bi hauteskunde-kolegio osatuko espezialista eta ez-kualifikatuen koiziente ez delako 0,5era iristen.

Egia esan kalkulua eragiketa matematiko sinplea da:

$$\begin{array}{r} 200 \text{ ——— } 9 \\ 191 \text{ ——— } x \end{array} \quad 191 \times 9 = 1719, 1719:200 = 8,59$$

$$\begin{array}{r} 200 \text{ ——— } 9 \\ 9 \text{ ——— } x \end{array} \quad 9 \times 9 = 81, 81:200 = 0,40$$

Hauteskunde-kolegioen kopuruak sortzeko eman daitezkeen aukerak ondorengoak dira:

- 1.- Kolegio bakarra. (Aurreko baldintza bat bera ere betetzen ez denean).
- 2.- Bi kolegio. (Aurreko hiru baldintzak oso-osorik betetzen direnean).
- 3.- Hiru kolegio. (Hitzarmen kolektiboan hirugarren kolegioa negoziatu denean (LEko 71. art.) eta aurreko hiru baldintzak betetzen direnean).

4.1.- OSAKETA

- 2 KOLEGIO DAUDENEAN.

Kasu honetan lehenengo kolegioa tekniko eta administrarien kategoria GENERIKOEK osatuko dute eta bigarrena espezialista eta ez-kualifikatuen kategoria GENERIKOEK osatuko dute. Hemen sortzen den arazoa da Estatutuak ez dituela gehiago zehazten aurreko kategoria profesionalak. Horretarako enpresako, sektoreko, probintziako, Autonomi Elkarteko edo Estatu mailako hitzarmenetera jo behar da, hau da, kategoria generiko bakoitzean zein kategoria sartzen den zehatz-mehatz jakin ahal izateko.

- 3 KOLEGIO DAUDENEAN:

Kasu honetan ikastetxe bakoitzeko konposaketak konbinazio posible ugari onartzen ditu. Honela, egon daiteke tekniko eta administratiboan ikastetxe bat, bestea espezialista eta ez kualifikatuena eta teknikoaren kategoria espezifikoa

4.2.- KOLEGIO BAKOITZEAN AUKERATU BEHARREKO ORDEZKARI-KOPURUA

Komiteto postuak proportzionalki beteko dira enpresa bakoitzean, aipatutako kolegioak osatzen diren langile-kopuruaren arabera, hauteskunde-mugaperako ezarri zen prozedura bera aplikatuz, hau da, kontutan izanda langile finkoak, langile finko aldizkakoak, urtebetetik gorako lan-kontratuak duten inoizkako langileak eta urtebetez azpiko inoizkako langileak hauteskunde-deia egin aurreko urtean lana egindako egunak.

Eragiketa matematikoak egin ondoren ordezkari guztiak izendatzeko baldin badaude, zatirik handiena duen edo duten kolegio edo kolegioek izango dute ordezkari horiek aukeratzeko eskubidea (LEko 71 art.).

Adibidea:

Lantegi batean 1.000 langile daude, honela banaturik: 1 kolegioan 700 langile eta 2 kolegioan 300 langile. 21 kidez osatutako komitea aukeratu behar dute.

1. kolegioari tokatzen zaio: $700 \times 21 = 14.700$, $14.700:1000 = 14,7$.

2. kolegioari tokatzen zaio: $300 \times 21 = 6.300$, $6300:1000 = 6,3$

1 kolegioa zatiki handiagoa duenez, honela erabakitzen da: 1 kolegioak: 15 ordezkari. 2 kolegioak: 6 ordezkari. Hiru kolegio baleude berdin-berdin izango litzateke.

HAUTESLEAK ETA HAUTAGAIK

1.- HAUTESLE IZATEKO BALDINTZAK

1.1.- INOREN KONTURAKO LANGILEA IZATEA (LEko 69. art.).

ONDORIOZ ETA LEko 1.3 artikulua APLIKATUZ HEMENDIK KANPO GERATZEN DIRA.

a) Funtzionari publikoak eta Estatuko, korporazio lokaletako eta entitate publiko autonomoetako langileak, Lege baten babesean aipatutako erlazio hori arau administratiboz eta estatutarioz arautzen denean.

b) Obligaziozko prestazio pertsonalak burutzen dituztenak.

c) Bereziki izaera juridikoa duten enpresetako aholkulari edo kontseilariak.

d) Lana adiskidetasunagatik, auzokidetasunagatik edo borondotez egiten dutnak.

e) Enplegatzen dituzten pertsonaren ahaideak, soldatapean daudela frogatzen ez den bitartean.

f) Enpresari batentzako edo gehiagorentzako merkatal eragiketak egiten dituztenak eta berorien arriskuen erantzule direnak.

Beste zenbait arau aplikatuz:

g) Goi-zuzendaritzako pertsonala (abuztuaren 1eko 1382/1985 E.D.ko 16. art.).

h) LEko 10.2 artikularen arabera lan-kontratua dutenak (talde-kontratua).

i) Etxetiko langilea talde familiarra denean (LEko 13.5 art.).

AITZITIK, HAUTESLE LIRATEKE:

a) Langile finkoak, besteak beste administrazio publikoetako pertsonala.

b) Plantilako langile «ez-finkoak», hau da, finko aldizkakoak eta epe finkorako kontratua dutenak (iharduera berriak sustatzeko, ekoizpen-kontuak direlako, lan edo zerbitzu jakin bat egiteko, praktikatan daudenak, trebakuntzakoak, errelebuetoakoak, behin-behineko enplegua sustatzeko neurri gisa). (LEko 11., 12., 15 artikulua eta 2104/1984, 1991/1984, 1992/1984 eta 1989/1984 Erret Dekretuak).

c) Denbora partzialeko langile finkoak.

d) Etxetiko langilea talde familiarra ez denean (LEko 2.1b art.).

e) Etxe familiarren zerbitzuko langileak (LEko 2.1b art.).

f) Presondegi-erakundeekin lan-harremanak dituzten penatuak (LEko 2.1a art.) eta desgaituntzarik edo sufragio aktibotik gabetuta ez daudenak.

g) Kirolari profesionalak (LEko 2.1d art.).

h) Ikuskizun publikoetako artistak (LEko 2.1e art.).

i) Enpresari batentzako edo gehiagorentzako merkatal eragiketak burutu eta berorien arriskuen erantzule ez direnak (LEko 2.1f art.).

j) Lege baten arabera izaera bereziko lan-harremana dutenak (LEko 2.1g art.).

1.2.- 16 URTE BAINO GEHIAGO IZATEA.

Urteak hauteskunde-eguna baino lehenago edo egun berean bete behar dira. (Nahiz eta LEak eta RDNCEak ezer esan ez, data hori hartu behar da egokientzat langileak enpresan parte hartzeko eskubidea izan dezan). (LEko 61. art.).

1.3.- LANGILEAK ENPRESAN HILABETE BATEKO, GUTXIENEZ, AINTZINATASUNA IZATEA.
Aurreko baldintzen arrazoi berberengatik aintzinatasuna bozketa-egunari dagokio.

1.4.- LANGILEAK HAUTESKUNDE-MUGAPEKOAK ETA KOLEGIOKOAK IZATEA (LEko 69. art.).

Honek esan nahi du A lantokiko langile bat ez dela B lantokiko hautesle eta hautagai. Edo, lantoki batean 1 kolegioko langile bat ezin dela 2 kolegioko hautesle nahiz hautagai izan.

2.- HAUTAGAI IZATEKO BALDINTZAK

2.1.- HAUTESLE IZATEKO BEHAR DIREN BALDINTZAK BETETZEA.

2.2.- SUFRAGIO PASIBOKO ESKUBIDEAZ GABETZEN DUTEN ZIGORRIK EZ IZATEA.

2.3.- 18 URTE BETETA IZATEA (LE, 69.1 art.). Adina hauteskunde-egunari dagokio.

2.4.- ENPRESAN 6 HILABETEKO AINTZINATASUNA IZATEA. HITZARMEN KOLEKTIBOAREN BIDEZ EPE HORI 3 HILABETETARA JAITS DAITEKE (LE, 69.2 art.).

Baldintza honek dituen ondorio elektoralak ondoren azaltzen den moduan laburbil daitezke:

2.4.1.- Langile finkorik ez duten enpresetan, hau da, enpresan bakarrik inoizkako langileak 6 hilabeteko kontratuarekin (3 hilabeteko kontratua hitzarmen kolektiboan adostasunik baldin badago) dabilzanetan ezin izango da hauteskunderik egin, ez baitago aintzinatasun hori duen hautagairik.

2.4.2.- Langile finkoak edo hauteskunde dagokienean haiei parekatuak dauden langileak eta 1. puntuan adierazitako inoizkako langileak dituzten enpresetan langile finkoak edo parekatuak bakarrik izan ahal dira hautagai.

2.4.3.- Enpresa berrietan ezin izango dira hauteskundeak egin lehenengo 6 hilabeteetan (3 hilabeteetan hitzarmen kolektiboan adostasunik balego). (Hauteskunde-araudiari buruzko E.D.ko 1.e artikuluan berretsia).

2.4.4.- Langile atzerritarrak hautesle nahiz hautagai izan daitezke, apartatu honetako baldintzak betetzen dituztenean.

KANDIDATURAK

1.- KANDIDATUREK BETE BEHARREKO BALDINTZAK ENPRESA-BATZORDEETARAKO HAUTESKUNDEETAN

1.1.- Kandidatura osatzen duten hautagai guztiak eta bakoitzak izan beharko dute hautagai aurkezten diren hauteskunde-kolegioetan.

1.2.- Hautagaiak hautagai izatea onartu behar dute, horretarako berariaz prestatutako aitordpena sinatuz (1311/86 E.D.ko 7.1 art.).

1.3.- Kandidaturak, gutxienez, bete behar diren postuak adina hautagai izan behar ditu (LEko 71.2 art.). Beraz, kandidatek izan ditzakete bete beharreko postuak baino hautagai gehiago; arazo hori baloratu egin beharko da, dimisiogatik edo beste arrazoi batzuegatik ematen diren ordezkapenak egiteko aurrikuspenen arabera.

Halere, kandidatura bateko kideren batek hauteskunde-eguna baino lehen erretiratzea erabakitzen baldin badu, nahiz eta osoa ez izan ez du kandidatura ezereztatzen, betiere kandidatura horrek bete beharreko postuen %60a betetzeko adina hautagai, gutxienez, dituen (LEko 71.2 art.).

1.4.- Kandidatura HAUTESKUNDE-MAHAIAREN aurrean legez eraturako Sindikatu batek edo hautako beharreko kideen kopurua baino hiru aldiz handiagoa izan behar duen zentro bereko sinadura-kopuru batek abalaturik aurkeztu behar du.

Sindikatu edo langile-talde batek ezin du kandidatura bat baino gehiago aurkeztu. (LOREGeko 44.3 art.aren berdina).

1.5.- Hautagai bakoitzak sindikatuaren edo ordezkatzten duen langile-taldearen sigla izango du.

1.6.- Hautagaien aurkezpena honi erantsirik doan ereduaren egin behar da. (1311/86 E.D.ko 7.1 art.).

**ZEHAZTAPENA*

Enpresa-batzordeak aukeratzeko kandidatek ITXIAK ETA BLOKEATUAK dira, beraz, botua emateko orduan langileek ezin dute hautagaien izenik ezabatu, ordena aldatu edo kopurua aldatu. Horrelakorik gertatuko baliitz, botu hori nuloa litzateke.

HAUTESKUNDEEN PROMOZIOA

1.- HAUTESKUNDEAK GARATZEKO LEGITIMATUTAKO SUBJEKTUAK

Edozein hauteskunde-mugape dela ere, kontua da jakitea zein subjektu dauden legimitatuta hauteskundeak garatzeko. Arazoa, aipatu gabe 8/80 Legearen Estatutuan, Estatutuak bere 32/84 Legean dioena eta LOLSk zehazten dutena moldatuz erabaki behar da.

Erreferentzia gisa enpresa batean eman daitezkeen hauteskunde-mugapeetatik txikiena hartuko dugu, lantokia alegia; izan ere, enpresa batean lantoki bat baino gehiago baldin badaude, batzuentzako esandakoak besteentzako balio baitu.

Lantoki batean hauteskundeak garatzeko legimitatea dute:

1.1.- Estatu mailako ordezkari-tza sindikalik handienak dituzten sindikatuak (hau da, estatu mailan, gutxienez, %10eko ordezkari-tza lortu dutenak) (LEko 32/84 Legearen 67.1 artikulua eta LOLSko 6.1e).

1.2.- Hauteskunde-mugapea kokatzen den Komunitate Autonomoko erakunde sindikalik ordezkari-tzenak (gutxienez, eremu horretan %15a edo 1.500 ordezkari lortu dituztenak eta estatu mailako beste erakunde batekin federatu edo konfederatu gabe daudenak edo aurreko baldintzak bete ez eta estatu mailako ordezkari-tzarik handiena duteneko afiliatuak, federatuak edo konfederatuak) (LEko 32/84 Legea eta LOLSko 7.2 art.).

1.3.- Hauteskunde-mugapea kokatua dagoen lurraldean ordezkari-tza kualifikatua duten erakunde sindikalak (aipatu mugape horretan, gutxienez, %10eko ordezkari-tza lortu dutenak). (LOLSko 7.2 artikulua).

Lehenengo hiru kasuetan legimitatea lortzeko ez da beharrezkoa orain hauteskundeak garatzen diren mugapean aurreko hauteskundeetako ordezkari-tza izatea, ezta afiliatu bat bera ez izatea ere.

1.4.- Aurreko hauteskunde sindikaletan, enpresan %10eko ordezkari-tza lortu duten erakunde sindikalak (LEko 32/84 Legeko 67.1 art.). Kasu honetan gerta daiteke erakunde sindikal batek lantokiren batean ordezkari-tzik ez izatea eta, halere, hauteskundeak garatzea enpresako lantoki ezberdinetan %10a baino ordezkari-tza handiagoa duelako.

1.5.- Lantokiko langileek gehiengoaren adostasunarekin (LEko 72/84 Legeko 67.1 art.).

Hauteskundeak gara ditzaketen subjektu legitimatutak nortzuk diren zehaztu ondoren, oraindik zehazteko dago sindikatuen kasuan -hauek pertsona juridikoak dira-, NORTZUK DIREN

HAUTESKUNDEAK GARATZEKO BAIMENA DUTEN PERTSONA EDO PERTSONA FISIKOAK.

Horretarako kontutan izan behar da Sindikatuko estatutuak dioena edo Batasun Nazionalen hartutako erabakia. Horrela, enpresa bateko hauteskunde-garapena dagozkien lurraldeko organoek abalatu behar dute, baita kandidaturen aurkezpena ere.

2.- PROMOZIOA ZUZENTZEN ZAION SUBJEKTUA

Hauteskundeak egiteko eragileen borondatezko adierazpenak bi subjektu ditu helburu, bata publikoa eta bestea pribatua, ondorengoak:

- Komunitate Autonomoetako organo kompetenteak.
- Enpresarioa.

LEko 67.1 artikulua dio eragileek enpresari eta Erregistroko Bulego Publikoari jakinaraziko diotela hauteskundeak egiteko duten asmoa. Komunikazio horretan eragileek zehatz-mehatz azaldu behar dute enpresa eta beronen lantokia eta hauteskunde-prozesuaren hasiera-data. Prozesu horretako lehenengo egitekoa hauteskunde-mahaia osatzea izango da.

Bakar bakarrik ordezkariarik handiena duten sindikatuen arteko gehiengoaren adostasunarekin eta 11/1985 Lege Organikoarekin, Askatasun Sindikalaz ari dena, garatu ahal izango dira hauteskundeak lur-mugape ezberdinetan. Akordio horien berri eman beharko zaio Erregistroko Bulego Publikoari gordailatzeko eta iragartzeko (LEko 67.1 art.).

Dena den, kontuan izan beharrekoa da ADMINISTRAZIO AUTONOMOARI ETA ENPRESARIARI JAKINARAZI BEHAR ZAIELA.

Langile-ordezkaririk aukeratutako hauteskundeetan, maiatzaren 19ko 11/1994 Legeko 1. parrafoko Bigarren Xedapen Iragankorrean jasotzen den bezala, hauteskunde-prozesua martxan jartzeko data lantokian ordezkariarik handiena duen edo duten sindikatuak edo sindikatuak ezarriko dute. Data jartzeko duten lehentasun hori galdu egingo dute sindikatuak 1995eko urriaren 31 baino lehenago hauteskundeak egiteko aurreabisurik egiten ez badute.

3.- ERAGILEEN ELKARTZEA

Gerta daiteke subjektu eragile bat baino gehiago izatea, aldi berean nahiz hurrenez hurren eta lehenengo kasuan elkarrekin ihardutea edo bakoitza bere aldetik ihardutea. Promozio bateratua egiten denean edo bakoitzak bere aldetik egiten duenean eta hauteskunde-prozesuaren hasiera-datak kointziditzen dutenean ez dago inolako arazorik, ondorio juridikoa berbera baita: hauteskunde-prozesua egun berean hastea, alegia.

Arazoa beste edozein kasutan sortzen da; hau da, subjektu legitimatuek hauteskunde-prozesuaren hasiera-data ezberdinak ezartzen dituztenean. Beraz, beharrezkoa da horri buruzko arau bat ezartzea.

Aipatutako arau hori 1311/86 E.D.ko artikulua ematen digu: «Enpresa edo lantoki berean hauteskundeak egiteko eragile ezberdinak aurkezten baldin badira, hauteskunde-prozesuari hasiera emateko data, horretarako eskumena duen Erakundearen lehen jasotako komunikazioak esaten duena hartuko da kontutan».

LEko 67.2 artikulua salbuespen ezartzen du, hauex: «Enpresa-batzorde bat dagoen enpresa edo lantoki bateko ordezkariak sindikalik handiena duenak eta enpresa-batzordeak data ezberdinak aurkezten baldin badituzte, beti enpresa-batzordeak aukeratutakoa hartuko da aintzat; jakina, bi deialdiek indarrean dauden baldintzak betetzen dituztenean».

Azken kasu honetan promozioari beste batek edo batzuek aurrez egindako hauteskunde-promozio horren komunikazioa erantsi beharko zaio.

Euskal Autonomi Elkarteko Sindikatuarteko 4. puntuko 4., 5. eta 6. parrafoek diote:

"4.- Nolanahi ere, enpresa edo lantoki bateko enpresa-batzordean ordezkariak handiena duen edo duten sindikatuak edo sindikatuak edo erasando langileek, gehingoaren adostasunarekin, enpresan ezarrita zegoen data aldatu ahal izango dute. Hauteskunde-prozesuaren hasiera-data berria agintaritza laboralarik jakinarazi beharko diote, egutegian edo errebokatzen den aurreabisuak markatzen duen data baino hamabost egun lehenago.

5.- Aurreko puntuan ezarritakoaren arabera konpon ez daitezkeen aurreabisuak pilatuko balira, hauteskunde-prozesuaren hasiera-datatik hurbileneko data nagusituko da; jakina, aurreabisuak behar den garaian egin baldin bada.

6.- Hauteskunde-prozesua inoiz ez da hasiko aplika daitezkeen aurreabisuak ezarritako data baino lehenago. Botua ematea eta kontaketa, legeak ezartzen duen epe barruan egin behar da enpresa edo lantokian hauteskunde-mahaia osatu den unetik kontatuta; beraz, ezin da iraungipena planteiatu, aipatutako osaketa horretatik aurrera ez bada behintzat."

4.- PROMOZIOAREN ARRAZIOIAK

4.1.- ERABATEKO PROMOZIOA

4.1.1.- Hauteskunde bidez lortutako 4 urtetako agintaldia iraungi baino lehenago (1311/86 E.D.ko 1.1a art.).

4.1.2.- LEko 67.3 artikulua enpresaren prozeduraren arabera ordezkari guztiek errebokatzeagatik (1311/86 E.D.ko 1.1b art.).

4.1.3.- Jurisdikzio kompetenteak hauteskunde-prozesuaren deuseztasuna eskatzen duenean (1311/86 E.D.ko 1.1c art.).

4.2.- PROMOZIO PARTZIALA

4.2.1.- Bakantea dagoenean, ordezkariak egin gabe:

- Dimititzeagatik.

- Heriotzazatik.

- Errebokazioagatik.

- Bestelako arrazoiengatik (lan-kontratua iraungi delako ...) 1.1d art.

4.2.2.- Enpresa edo lantegi bat sortzeagatik, 1311/86 Erret Dekretua (LEko 69.1 art. eta 1311/86 Erret Dekretuko 1.1e). Kasu honetan promozioa iharduera hasten denetik 6 hilabete igaro ondoren egin ahal izango da, edo 3 hilabete igaro ondoren hitzarmen kolektiboan hautagai izateko epe hori jasoko balitz.

4.2.3.- Plantila handitzeagatik (1311/86 E.D.ko 15. art.).

«Arrazioia edozein delarik ere lantegi batean plantila handiagotzen bada eta honek langileen Estatutuko 62.1 eta 66.1 artikuluetan aurikusten diren eskalen arabera langileen ordezkari-kopurua birmoldatzea suposatuko balu, promozio partziala bultzatu ahal izango da egoera berriak sortutako postu bakanteak betetzeko».

4.2.4.- Plantila nabarmen murrizteagatik (LEko 67.1 art.).

"Enpresa batean eman daitezkeen plantila-murrizketa nabarmenak langileen ordezkariak berregokitzeko eman behar diren urratsak jasoko daitezke hitzarmen kolektiboan. Bestela, berregokitze hori enpresa edo langileen ordezkarien arteko adostasunarekin egin beharko da."

"Aukeraturik ateratzen diren ordezkariak agintaldia enpresan dauden besteekin batera amaitzen da."

Adibidez, 80 langileko enpresa batean 5 ordezkari daude eta gerora 80 langile izatetik 120 izatera pasatzen bada, 9 dira langileei dagozkien ordezkariak, eta egin behar dena da 4 ordezkari berri aukeratu

5.- PROMOZIOAREN UNEA

5.1.- ERAGITEA HAUTESKUNDE-AGINTARITZA IRAUNGITZEAGATIK

RDNCE-k bere 1.1.a artikuluan ezartzen du eragitea egin ahal izango dela «4 urteko hauteskunde-agintaritza iraungi baino lehenago ...»

Bestalde, 67.1 artikulua ezartzen du «eragileek enpresari eta Erregistroko Bulego Publikoari jakinaraziko diete hauteskundeak egiteko asmoa dutela, gutxienez, hauteskunde-prozesua hasi baino hilabete bat lehenago ... Jakinarazpen horretan eragileek zehatz-mehatz identifikatu beharko dute hauteskundeak zein enpresatan edo enpresaren zein lantokitan egin behar dituzten eta hauteskunde-prozesuaren hasiera-data; prozesua hauteskunde-mahaia osatzearekin batera hasten da eta edozein kasutan ere ezin hasiko dira Bulego Publikoan jakinarazpena erregistratu eta hilabete bat lehenago, ezta hiru hilabete beranduago ere.»

Langileen ordezkari berriak aukeratzeko hauteskundeak, maiatzaren 19ko 11/1994 Legea indarrean sartu baino lehenago aukeratutakoak ordezkatzeko 15 hilabetetan zehar egin daitezke 94-9-15etik aurrera, bien bitartean agintaritzak beren ondorio guztiekin prerrogatu egiten dira.

67.2 artikulua ezartzen du " enpresari jakinarazten ez bazaio, huts hori bertara, enpresara, Erregistroko Bulego Publikoan aurkeztutako jakinarazpen edo aurreabisu baten kopia eramanda konpon daitekeela, beti ere hauteskunde-prozesuaren hasiera-data baino 20 egun lehenago eramaten bada."

5.2.- BESTE ARRAZOI BATZUENGATIKO PROMOZIOA

Aurrez Komunitate Autonomoko eskumena duen Erakundeari jakinarazi behar zaizkio errebokazioak, dimisioak eta agintaldiaren bukaera, gertatu eta hurrengo 10 lanegunetako epean (1311/86 E.D.ko 14. art.).

Komunikazio hori egin ondoren, promozioa edozein unetan egin daiteke, baina beti ere Administrazioari eta enpresariari eman beharreko aurreabisua eta eragileek hauteskunde-prozesuari hasera emateko dataren arteko hilabeteko epea errespetatuz.

6.- PROMOZIOAN KONTUTAN IZAN BEHARREKO DATAK

Promozio-ekintzak badu konplexutasunik datei dagokienean; beraz, ondoren zehazten dira aipatutako promozioan parte hartzen duten datak, denek ere elkarrekin erlazionatuta daude.

6.1.- ORDEZKARIEN AGINTALDIAREN AMAIERA-DATA

Guztiz beharrezkoa da data hori ezagutzea promozioa egiteko. Promozioa data hori baino lehenago egin daiteke, baina ez beranduago.

Oraingo hauteskunde-prozesu honetan, gogoan izan promozioa Agintaldiaren amaiera-data baino beranduago egin daitekeela; izan ere, hauteskunde-epea 15 hilabetetara luzatzean; 4 urte igaro direlako amaitzen diren agintaldiak prerrogatu egingo dira aipatu hauteskundeak egin arte.

6.2.- KONTAKETALDIAREN HASIERA-DATA.

6.3.- KONTAKETALDIAREN AMAIERA-DATA.

Bi data horiek zehaztuko dute ordezkari-kopurua Sindikatuen ordezkartasuna zenbaterainokoa den zehazteko. Denboraldi honetatik at egiten diren bozketak ez dira zenbatuko.

6.4.- HAUTESKUNDE-PROZESUAREN HASIERA-DATA.

Hasiera-data hauteskunde-mahaia osatzen denean hasten da. Data hori eragileek nahi dutenean zehazten dute Administrazioari zuzentzen dioten aurreabisuan. Prozesua aurreabisuan zehaztutako datan hasten ez bada, arrazoi justifikatua dela medio hurrengo 24 orduetan, aurreabisuak bere indarra galdu egiten du.

6.5.- BOZKETA-EGUNA.

Data hau hauteskunde-mahaiak zehazten du. Halere, komeni da gogoan izatea egutegiez esaten duguna.

Dena den, data hau neurri batean, bederen, eragileek markatutako hasiera-datak baldintzatua dago, ondorengoak:

Enpresa-batzordeentzat.

Hasiera-data eta bozketa-egunaren artean igaro behar dute:

GUTXIENEZ	GEHIENEZ	
0	3	lanegun hauteskunde-mahaia osatu eta enpresariak langileen zentsua bidaltzeko.
0	?	egun hauteskunde-mahaiak hautesle-zentsua egiteko.
3 (72 or.)	?	egun hautesle behin-behineko zerrenda argitaratzeko.
1 (24 or.)	1	egun hauteskunde-mahaiaren aurrean erreklamazioak aurkeztu eta erabakitzeko.
0	1	egun hautesle behin-betiko zerrenda argitaratzeko.
9	9	egun kandidaturak aurkezteko.
0	2	egun kandidaturak aldarrikatzeko.
1	1	egun kandidaturei erreklamazioak egiteko.
1	1	egun erreklamazioak erabakitzeko.
5	?	egun behin-betiko aldarrikapena egin eta bozkatzeko.
<hr/>	<hr/>	
20	20	

Ondorioz, horiek izango dira, gutxienez, hasiera-datatik bozketa-egunerarte igaro behar duten egunak. Halere, gehienez, ez dauka mugarik. Hau beste arrazoi bat gehiago da egutegi berri bat egiteko, enpresak dituen araberako epe egoki batzuek jarriko dituen egutegi bat hain zuzen ere (zenbat eta langile gehiago orduan eta epe handiagoa), baina beti ere kontutan izanik ordezkapen sindikalerako dagoen kontaketa-epea ez dela pasatu behar.

7.- PROMOZIOAREN EDUKINA ETA FORMA**7.1.- ADMINISTRAZIOARI JAKINARAZI**

Idazki honen edukinaz nahikoa da esatea 1311/86 E.D.an (HAUTESKUNDEAK EGITEKO AURREABISUA) agertzen diren datu guztiak bete egin behar direla, aurrez azaldutako arrazoiengatik datarik nagusia hauteskunde-prozesuaren hasiera delarik.

Eredu ofizialak Administrazio Zentralak edo Autonomoak emango ditu (1311/86 E.D.ko bigarren Xedapen gehigarria).

Aipatutako EREDUAN aurrikusten diren zailtasunak, eta aurretiaz konpondu beharrekoak, enpresariari eskatuta edo ahal den moduan lortu behar diren datu hauei buruzkoak dira: Enpresaren IFK (Identifikazio Fiskaleko Kodea).

Gizarte-segurantzako zbk.

Langile-kopurua.

Hauteskundeak egiteko aurreabisuaren kopia bat, organo administratiboko Sarrera-Erregistroak zigilatu eta datatutako kopia bat hain justu ere eskatu behar da.

7.2.- ENPRESARIARI JAKINARAZPENA

Enpresariari idatzi bat bidaliko zaio, eta idatzi horri erantsita Administrazioan aurkeztutako aurreabisuaren fotokopia bat, beti ere kontutan izanik hauteskunde-prozesuaren hasiera-data baino hilabete bat lehenagoko, gutxienez, epe hori.

Enpresariari edo pertsona baimendu bati idatzia sinarazi egin behar zaio, jaso izanaren agiri gisa.

Gainera, orain arte azaldutako guztia prozesatzen denean, EGUTEGI ADIERAZGARRIA erantsiko zaio Hauteskunde-mahaiari bidaltzeko.

**PROMOZIOAREN EDUKIN ETA FORMA EPIGRAFEAREN ERANSKINA*

Hauteskunde-deia lantoki bateko langileen gehiengoaren adostasunarekin egiten denean, ondoren zehazten diren datuak jaso behar dituen asanblada-akta egiaztatuko da:

Lantokiko plantila.

Asanbladara deitutako langile-kopurua.

Bertaratuen kopurua eta bozketaren emaitza.

Agiri hau hauteskundeak egiteko aurreabisuari erantsiko zaio (1311/86 E.D.ko 1.2 art.).

ENPRESA KOMITEETARAKO HAUTESKUNDE PROZESUA

1.- HAUTESKUNDE MAHAIAREN ERAKETA

1.1.-AURREZ EGIN BEHARREKOAK

1.1.1.- Enpresariak promozio-idatziari bide emango dio zazpi lanegunen buruan, hauteskunde-mahaiko kideei eta langileen ordezkariiei emanez (LEko 74.1 art.).

1.1.2.- Enpresariak aldi berean jakinaraziko die eragileei aurreko jakinarazpena (LEko 74.1 art.).

1.2.- HAUTESKUNDE-MAHAIEN MOTA ETA KOPURUA

1.2.1.- MOTAK

LEak nahiz 1311/86 E.D.ko RDNCEak hauteskunde sindikalei buruzkoak, hauteskunde-mahaiei dagokienean ez dute batere argi hitzegiten. Hori dela eta behar beharrezkoa da gaia hasieratik argitzea. Laburbilduz, hauteskunde-arautegitik ondorioztatzen diren kontraesanei kalterik egin gabe, hiru mahai-mota bereiz daitezke hauteskunde-mugape bakoitzean.

- HAUTESKUNDE-MAHAIA.

- KOLEGIO-MAHAIA.

- MAHAI IBILTARIA (xehetasun gehiagotarako ikus RDNCEko 6. art.).

1.2.2.- HAUTESKUNDE-MUGAPE EDO HAUTESKUNDE-UNITATE BAKOITZEKO MAHAI-KOPURUA. Hauteskunde-mugape bakoitzean izango dira:

- HAUTESKUNDE-MAHAI bat.

- KOLEGIO-MAHAI bat 250 langileko edo zatikiko. 250 langile baino gehiago ez baldin badira eta gainera 2 edo 3 kolegio ez baldin badaude, aitzitik, kolegio bat baino ez baldin badago, hauteskunde-mahaiak beteko du kolegio-mahaiaren eginbeharra.

- MAHAI IBILTARI bat. (Osatzea adosten baldin bada. Halaber gerta daiteke hauteskunde-mahaia bera mahai ibiltari gisa aritzea).

Langileek ohizko lanleku finkorik ez duten enpresetan, bozketa hauteskunde-mahai ibiltariaren bidez egingo da, mahai ibiltari hau enpresako lanleku guztietara joango da behar den denboran, eta horretarako Enpresak garraiobide egokiak jarriko ditu Hauteskunde-mahaiko kideentzako eta interbentoreentzako eta hauteskunde-prozesuak sor ditzakeen gastuak Enpresak bere gain hartuko ditu.

Bide bera erabili ahal izango da 50 langile baino gutxiago dituzten enpresa bereko lantokiak elkartzuz, LEko 63.2 artikuluan aurriztuz den bezala.

Adibidea:

Demagun X enpresa batek lantoki ezberdinak dituela probintzia ezberdinetan, orain grafikoan ikusiko dugu zenbat hauteskunde-mahai jarri behar diren:

LAN ZENTROAK	LANGILE KOPURUA	1. KOLEGIOA	2. KOLEGIOA	MAHAI KOPURUA	1. KOLEGIOAREN MAHAI KOP.	2. KOLEGIOAREN MAHAI KOP.
Bizkaia	500	100	400	1	1	2
Gipuzkoa	700	100	600	1	1	3
GUZTIRA				2	2	5

1.3.- HAUTESKUNDE-MAHAIAREN OSAGIAK

1.3.1.- TITULARRAK (LEko, 73.3 art.):

- Lehendakaria (enpresan aintzinasunik handiena duen langilea).
- Bokala (adinik handieneko hauteslea).
- Bokal-idazkaria (adinik gutxieneko hauteslea).

1.3.2.- ORDEZKOAK (LEko, 73.3 art.):

- Lehendakari ordezkoa (aintzinasunean Lehendakariaren jarraian doan langilea).
- Bokal ordezkoa (adinean Bokalaran jarraian doan hauteslea).
- Bokal-idazkari ordezkoa (adinean Bokal-idazkariaren jarraian doan hauteslea).

Hauteskunde-mahaiko Lehendakari, Bokal eta Idazkariaren karguak errenuntziatuezinak dira. Kargua betetzeari uzteko gertatzeko ezinezkotasun-arrazoiak izan beharko dira (gaisotasun, istripu, ezinbesteko arrazoi), eta aurretik garaiz jakinarazi beharko dira ordezkapena egiteko denbora emanez (RDNCEko 5.3. art.).

Mahaiko ezein kidek ezin du hautagai izan. Hala balitz, ordezkoa jarriko da haren tokian (LEko 73.4 art.).

1.3.3.- INTERBENTOREAK

Kandidatura bakoitzak izenda dezake interbentore bana (LEko 73.5 art.). Interbentoreak ahotsa bai baina boturik ez du izango, eta bere egitekoa izango da hauteskundeetako araudi guztia bete dadin zaintzea eta, betetzen ez denean, mahaiaren aurrean tokatzen den erreklamazioa idatziz aurkeztea, beronen kopia sinatu bat eskatuz konstantzia gera dadin.

1.3.4.- ENPRESARIAREN ORDEZKARIA

Estatutuaren arabera (73.5 art.) botaziora eta kontaktetara joatea bakarrik izango dira enpresari-ordezkararen egitekoak. Enpresaria parte interesatu bezala hartzen da prozesalki, horregatik honek ere egin ditzake bere erreklamazioak. Botua emateko eskubiderik ez dauka, jakina.

1.4.- ERAKETAREN UNEA ETA MODUA

Promotoreek esandako egunean eratuko da HAUTESKUNDE-MAHAIA. Egun hori izango da hauteskunde-prozesua hasteko data (LEko 67.1 eta RDNCEko 2.1 art.).

Eraketa egiteko modua akta bidez egingo da, zeina mahaiaren osakide guztiek sinatuko baitute (LEko 74.1 eta RDNCEko 5.2. art. eta Eredua).

Hauteskunde-mugape bakoitzeko HAUTESKUNDE-MAHAI eratuko da.

1.5.- HAUTESKUNDE-MAHAIAREN FUNTZIOAK

- Botazioaren data jartzea.

- Hauteskunde-prozesu osoaren garapena zaintzea.
- Hauteskunde-zentsua egitea.
- Hauteskunde-zentsuak argitaratzea, behin-behinekoa eta behin-betikoa.
- Ordezkarien kopurua finkatzea.
- Kandidatuak aurkezteko tope-eguna finkatzea.
- Aurkezten diren erreklamazioak konpontzea.
- Aurkezten diren kandidaturak onartzea.
- Kandidaturak aldarrikatzea.
- Beharrezko aktak jasotzea.
- Kontaketa-akta idaztea hiru egun natural baino lehenagoko epe batean.
- Kontaketa-aktaren kopiak bidaltzea interbentore, enpresari eta hautatutako ordezkari guztiei.
- Botazioaren emaitzak argitaratzea.
- Kontaketa-akta aurkeztea Erregistroko Bulego Publikoan.

HAUTESKUNDE-MAHAIA halaber **KOLEGIO-MAHAI** edo **MAHAI-IBILTARI** baldin bada:

- Botazioa jarburutzea.
- Kontaketa egitea.

HAUTESKUNDE-MAHAIAKO ERABAKIAK BERTAKO KIDEEEN GEHIENGOAREN ADOSTASUNAREKIN HARTUKO DIRA (Lehendakari, Bokal eta Idazkari-Bokal, RDNCEko 5.10 art.).

HAUTESKUNDE-MAHAIAREN arautegia LEko 73, 74 eta 75 eta RDNCEko 5. artikulutan jasotzen da.

2.- BOTAZIO-DATAREN EZARKETA

HAUTESKUNDE-MAHAIAK dauka botazio-data finkatzeko ardura. LEak eta RDNCEak ez dute esaten zein unetan finkatu behar den botazio-data.

LEak (74.3 art.) esaten du kandidaturak aldarrikatzen direnetik botazio-egunera, gutxienez, 5 egun igaro behar direla.

RDNCEk (5.4 art.) bestalde, dio: «*Hauteskunde-mahaiek finkatuko dute botazio-data eta enpresari hogeita lau orduko epean jakinarazioko zaio ...*».

Hau da, **HAUTESKUNDE-MAHAI**AK, berak nahi duenean, finkatzen du botazio-data, eta une horretatik aurrera 24 ordu ditu enpresariari jakinarazteko.

Komeni da **HAUTESKUNDE-MAHAIAREN** aurrea ekin eta ekin aritzea botazio-data eratzten den unean finka dezan, hauteskunde-prozesuan zalantzarik izan ez dadin eta, ahal bada, EGUTEGIADIERAZGARRIAN proposatutako datan lantoki ezberdinak dituen enpresa bat denean eta, beraz, **HAUTESKUNDE-MAHAI** bat baino gehiagorekin (lantegiak adina) denen artean koordinazio ona egon dadin.

3.- ENPRESARIAK LAN-ZENTSUA HAUTESKUNDE-MAHAIARI BIDALTZEA

Enpresariak **HAUTESKUNDE-MAHAIARI**, hau osatu eta 3 lanegunen buruan bidali behar

dizkio (RDNCEko 3.1 art.):

- LANGILEEN ZENTSUA.
- Enpresaren identifikazio-datuak, HAUTESKUNDE-MAHAIAREN ERAKETA-AKTAKO inprimakiaren arabera.

**Zehaztapena:*

LANGILEENZENTSUA honela desglosatuko da: Langile finkoak, finko aldizkakoak eta inoizkakoak HAUTESKUNDE-KOLEGIOKA bilduko dituen Eredua, konstaraziz (RDNCEko 3.2 art.): - Izena eta bi abizen.

- Sexua., Jaiotze-data., N.A.N. zenbakia., Katetoria profesionala. eta Enpresan duen aintzinasuna.

4.- HAUTESKUNDE-ZENTSUA EGITEA MAHAIAREN ALDETIK

Hauteskunde-zentsuko langile guztiak ez dira hautesle. Hori dela eta HAUTESKUNDE-MAHAIAK erabaki beharko du, enpresariak eman dion zerrendatik, zeintzuk diren botua emateko eskubidea dutenak.

Zerrenda handiak direnean mahaiek ez dute gaitasunik izango zerrenda guztiak begiratzeko, 3 lagun bakarrik baitira. Beraz, komeni da arazo hauen aurrean adi egotea kasuan kasuak arazoak konpontzeko. Hauteskunde-operazio hau burutzeko RDNCEk ez du eperik finkatzen; hori dela HAUTESKUNDE-MAHAIAK finkatzen du bere iraupena edo EGUTEGI ADIERAZGARRIAN egokitzen da.

5.- HAUTESKUNDE-ZENTSUAREN ARGITARATZEA

HAUTESKUNDE-ZENTSUA HAUTESKUNDE-MAHAIAK argitaratuko du.

Jendaurrean gutxien gutxienik 72 ordu egon behar du (hortik gora ere bai (LEko 74.3 art.)).

6.- HAUTESKUNDE-ZENTSUAREN KONTRAKO ERREKLAMAZIOA

Hauteskunde-zentsuari egiten zaizkion erreklamazioak edozein interesatuk egin ditzake HAUTESKUNDE-MAHAIAREN aurrean, argitaratzen denetik hasi eta erakusketa publikorako epea bukatu ondorengo 24 orduak pasatzen diren arte (LEko 74.3 art.)

Idatziz egingo dira, eta HAUTESKUNDE-MAHAIAKO Lehendakariak eta Idazkariak sinatu beharko ditu horien kopiak.

HAUTESKUNDE-MAHAIAK konponduko ditu hauteskunde-zentsuaren kontra aurkeztutako erreklamazioak, gehienez ere 24 orduko epe baten barruan (RDNCEko 5.10 art.) eta hautesleen behin-betiko zerrenda argitaratu aurretik.

HAUTESKUNDE-MAHAIAREN ebazpenaren kontra egin daiteke inpugnazio bat LEko 76. artikuluan araututako prozedura arbitrala jarraituz.

7.- HAUTESLE-ZERRENDA BEHIN-BETIKOAREN ARGITARATZEA ETA HAUTATU BEHARREKO ORDEZKARIEN KOPURUA ZEHAZTEA

HATESKUNDE-MAHAIK hautesleen behin-betiko zerrenda hurrengo 24 orduetan argitaratuko du, hautesleen behin-behineko zerrenda argitaratu eta erreklamazioak aurkezteko epea luzatzen den 24 ordu igaro ondoren (LEko 74.3 art.). Hau da, behin-betiko zerrenda behin-behineko zerrenda argitaratu eta handik 24-48 orduetan argitaratuko da.

Aldi berean, HAUTESKUNDE-MAHAIK hauteskunde-kolegio bakoitzak aukeratu beharreko ordezkari-kopurua zehaztu beharko du, kandidatek aurkezteko modua izan dezaten.

8.- KANDIDATUREN AURKEZPENA

Kandidaturak HAUTESKUNDE-MAHAIAREN aurrean behin-betiko zerrenda argitaratu eta hurrengo 9 egunetan aurkeztuko dira (LEko 74.3 art.).

Hautagaien aurkezpenak hertsiko jarraitu beharko ditu KANDIDATUREN sailean esandako guztiak.

HAUTESKUNDE-MAHAIK, hautagaien behin-betiko aldarrikapena egiten ez den bitartean, eska dezake hautagaien berrespenean antzemandako akatsak zuzentzeko; zuzenketa hori interesatuek berek egin beharko dute HAUTESKUNDE-MAHAIAREN aurrean (RDNCEko 7.1 art.).

9.- HAUTESKUNDE-KOLEGIOEN ERAKETA

9.1.- ERAKETA-UNEA

HAUTESKUNDE-KOLEGIOAK (behar diren guztietan), hautesleen behin-betiko zerrenda argitaratu eta hurrengo 24 orduetan eratuko dira.

9.2.- OSAGAIK

9.2.1.- TITULARRAK

- 1 Mahaiko Lehendakaria (koegioan aintzinasunik handiena duen langilea).
- 1 Mahaiko Bokala (Kolegioko hauteslerik zaharrena).
- 1 Mahaiko Bokal-idazkaria (Kolegioko hauteslerik gazteena).
- 2 Mahaiko Lehendakaria (1 Mahaiko Lehendakariaren ondoren aintzinasunik handieneko langilea).
- 2 Mahaiko Bokala (1 Mahaiko Bokalaren ondoren hurrengo hauteslerik zaharrena).
- 2 Mahaiko Bokal-idazkaria (1 Mahaiko Bokal-idazkariaren ondoren hurrengo hauteslerik gazteena).
- Eta horrela, hurrenez hurren, KOLEGIO-MAHAI guztietan.

9.2.2.- ORDEZKOAK

KOLEGIO-MAHAI bakoitzeko, titularrak izendatu ondoren ordezkioak izendatuko dira, Lehendakari, Bokal eta Bokal-idazkari, hauek hurrenez hurren aintzinasunean, adinean eta gaztetasunean titularrei jarraitzen zaizkienak izango dira.

INTERBENTOREZ, ENPRESARIAREN ORDEZKARIEZ, KARGUEN ERRENUNTZIAEZINTASUN ETA BATERAEZINTASUNAZ. IKUS HAUTESKUNDE-MAHAIEZ ESANDAKOIA.

9.2.3.- ERAKETA MODUA

KOLEGIO-MAHAIA mahaiko kide guztiek sinatuko duten akta bidez eratuko da, RDNCEko ereduaren arabera. (RDNCEko 5.9 art.).

9.2.4.- KOLEGIO-MAHAIEKIN KOPURUA

KOLEGIO-MAHAI bat eratuko da 250 hautesleko edo zatikiko kolegio bakoitzeko (LEko 73.1 art. eta RDNCEko 5.1 art.). Ikus MAHAI-KOPURUA ETA MOTAK epigrafea.

9.2.5.-KOLEGIO-MAHAIEKIN EGITEKOAK

- Botazioa jarburutzea.
- Kontaketa egitea.
- Aurkezten diren erreklamazioak konpontzea.
- Beharrezko aktak luzatzea.
- Lantegiko mahai guztiekin batera kontaketa egitea eta emaitzak esleitzea.

KOLEGIO-MAHAIEKIN AKORDIOAK BERTAKO KIDEEN GEHIENGOAREN ADOSTASUNEZ HARTUKO DIRA (lehendakari, Bokal eta Bokal-idazkari).

HAUTESKUNDE-KOLEGIOEN araudia LEko 73, 74, 75 art. eta RDNCEko 5? art.).

10.- HAUTAGAIEN ALDARRIKAPENA

Hautagaien aldarrikapena HAUTESKUNDE-MAHAIEKIN egingo du, hauek, kandidaturak, aurkezteko epea amaitu eta hurrengo 2 lanegunetako epe barruan (LEko 73.3 art.).

Hauteskunde-ekintza honen garrantziaz ohartu beharra daukagu, aldarrikatzen ez diren kandidatek ez baitaude boturik jasotzeko eskubiderik.

11.- HAUTAGAI-ALDARRIKAPENEN KONTRAKO ERREKLAMAZIOAK

Hautagai-aldarrikapenen kontrako erreklamazioak HAUTESKUNDE-MAHAIEKIN aurrean egin behar dira, aldarrikatu eta hurrengo lanegunean.

Erreklamazioa idatziz egingo da, eta kopia HAUTESKUNDE-MAHAIEKIN Lehendakariak edo Idazkariak sinatu beharko du.

HAUTESKUNDE-MAHAIEKIN hurrengo lanegunean konponduko du erreklamazioa (LEko 73.4 art.), eta une horretatik aurrera esan daiteke kandidaturak behin-betiko aldarrikatzen direla.

HAUTESKUNDE-MAHAIEKIN erabakia inpugna daiteke, LEko 76 art. an arautzen denaren arabera.

12.- HAUTESKUNDE-PROPAGANDA

Hautagaiak behin-betirako aldarrikatzen diren unetik aurrera, hautagaien sustatzaileek, hautagaien aurkezleek eta hautagaiak beraiek, egin ahal izango dute HAUTESKUNDE-PROPAGANDA botaziorako seinalatutako dataren aurreko eguneko zero ordurarte, lanaren prestazio normala aldatzen ez bada (RDNCEko 7.4 art.).

13.- BOTAZIOA

Botazioaren inguruan dauden egintza eta inguruabar guztien artean, gehienak LE eta RDNCEan araututa aurkitzen diren arren, badaude beste batzuk arautu gabe daudenak eta funtsezkoak gertatzen direnak; horregatik, analogiaz, Hauteskunde-Erregimen Orokorreko Lege Organikoan (LOREG) erabakitakora jo behar da honelakoetan.

1.- Botazioa HAUTESKUNDE-MAHAIK ezarritako egunean egingo da, lan-egunaren barruan, eta kontuan hartu beharko da turnotan edo lanaldi berezietan lan egiten dutenen egoera ere (LEko 75.1 art. eta RDNCEko 5.4 art.).

2.- Lan-zentroan edo lantokian egingo da botazioa (LEko 75.1 art.).

3.- KOLEGIOKO MAHAIAREN aurrean fisikoki egonez ala postaz bidaliz egikari daiteke botu-eskabidea. (Ikus POSTA BIDEZKO BOTUARI BURUZKO ERANSKINA). Bi kasu horietako edozeinetan, hautesleak hauteskunde-zentsuan egon beharko du sartuta botua eman ahal izateko. Lehenengo kasuan, gainera, bere identitatea justifikatu beharko du N.A.N., gida-karneta edo pasaportearen erakutsiz (RDNCEko 5.6 art. eta LOREGeko 85.1 art.).

4.- Botua librea, sekretua, pertsonala eta zuzeneko izango da (LEko 75.2 art.).

5.- BOTU-TXARTELAK

Botua emateko txartelak denak berdinak izango dira tamainuz, kolorez, inpresioz eta paper-kalitatez (LEko 75.2 art. eta RDNCEko 5.6 art.).

Txartel bakoitzean sindikatuaren SIGLAK azaldu beharko dira (edo bere kasuan langile-taldearena) (71.2a art.).

Ez da ezer arautzen Sindikatuaren ANAGRAMAZ; beraz, hauteskunde-lege orokorrarekin analogiaz, inprimi daiteke txarteletan sindikatuaren anagrama.

Ez da ezer arautzen botu-txartelak zeinek ekarri behar dituen esateko; beraz, printzipioz kandidatura edo Sindikatua izango da txartelak-egiteko eta banatzeko ardura izango duena.

Botu-txartelen eta, oro har, hauteskundeetako material guztiaren kostuari dagokionez, enpresaria egingo da horren kargu (LEko 75.1 art.).

6.- SOBREAK

Botu-txartela sobre baten barruan sartuko da. Kandidatura guztien sobre guztiak berdinak izango dira (RDNCEko 5.6 art.).

7.- Hauteslearen identitatea eta hauteskunde-zerrendan sartuta dagoela egiaztatu ondoren, Mahaiko Lehendakariak urnan sartuko du sobrea (RDNCEko 5.6. art.).

8.- Hautesle bakoitzak kandidatura bati bakarrik eman ahal izango dio botua (LEko 71.2a art.).

9.- Indar handiagoko arrazoiez bakarrik eseki ahal izango da botazioa edota bere garapena eten, Mahaiaren erantzukizunaren pean (RDNCEko 5.5 art.).

10.- URNAK

MAHAI bakoitzak behar bezala zigilatutako urna bat izan beharko du botazioaren hasieratik.

11.- Aurretik HAUTESKUNDE-MAHAIK bere egunean ezarritako orduan bukatuko da botazioa. Ondoren postaz emandako botuak sartuko dira urnetan. Segidan, Mahaiko kideek eta Interbentoreek emango dute beren botua.

12.- Gertatzen den edozein gorabehera edo erreklamazio botazio-aktan jasoko da.

14.- BOTU-KONTAKETA PARTZIALA

Botazioa bukatu bezain laster, KOLEGIO-MAHAIK publikoki (nahiz eta LEak, ez oso zuzen, hauteskunde-mahaiak hitzegin) egingo du botuen kontaketa, Lehendakariak ahots ozenez irakurriz botu-txartel guztiak (LEko 75.3 art.).

Eraitza akta batean jasoko da, eranskinen eredu araberako akta batean, hain zuzen ere (RDNCEko 5.9 art.).

Egia esan KOLEGIO-MAHAIK egiten duen kontaketa partziala kontaketa arrunt bat da.

Kontaketari dagionez, ondorengo botu-motak bereiztu behar dira (Hauteskunde Orokorreko Erregimenaren Lege Organikoko 96. art.).

14.1.- BALIOZKO BOTU izango dira:

a) BOTU KUNPLIMENTATUAK (hautagai baten alde behar bezala emandako botuak. Baliozkotzat hartuko dira halaber sobre batean kandidatura bereko bi txartel agertzen direnean, horrelako kasurik gertatuz gero, botu bakartzat kontatuko da).

b) ZURIAN EMANDAKO BOTUAK. (Batere botu-txartelik gabe dauden sobreak).

14.2.- BOTU NULUAK izango dira:

Sobre edota botu-txartela eredu ofizialak ezarritakoak ez direnean.

Sobrerik gabe emandako botu-txartelak edo sobre batean kandidatura ezberdinetako botu-txartelak agertzen direnean.

Eraldaketaren bat izan duten botu-txartelak, hala nola izenak erantsi, ezabatu edota ordena aldatuta dutenak, baita bestelako aldatetarik izan duten botu-txartelak ere.

Nolabaiteko eraldaketa izan duten sobreetan emandakoak.

Bete beharreko postuak baino hautagai gutxiago dituzten botu-txarteletan emandako botuak (LEko 71.2 art.).

Kontutan izan behar da honetaz LEko 71.2 Artikuluak dioena, hautagairen batek botazio-eguna baino lehenago errenuntziatuko balu, beti ere erasandako zerrendak, gutxienez, bete beharreko %60ko hautagai-kopurua mantentzen duenean.

Sindikatuaren edo langile-taldearen siglak agertzen ez diren botu-txartelak (LEko 71.2 art.).

15.- KONTAKETA GLOBALA

LANTOKIKO MAHAI guztiek bildu eta kontaketa globalari ekingo diote eta emaitzak zerrendei esleitzeari, eranskinen eredu araberako akta bidez (RDNCEko 5.9 art.).

Kontaketa globala KOLEGIO-MAHAI bakoitzeko emaitza partzialak batzea izango da HAUTESKUNDE-KOLEGIO bakoitzarentzat.

Kontaketa globala ez da beharrezkoa izango KOLEGIO-MAHAIRIK ez dagoenean.

16.- EMAITZEN ESLEIPENA

Kontaketa globala egin bezain laster egingo da emaitzen esleipena.

Kontaketa globalaren bidez jakin ahal da kandidatura bakoitzak jasotako botuak. Emaitzak esleitz zehaztuko da zeintzuk diren kandidatura bakoitzeko hautatuak, jasotako botuen arabera.

EMAITZEN ESLEIPENA EGITEKO ARAUAK

16.1.- Botuen kopurua Hauteskunde-kolegioka bilduko da (teknikari eta administrariaren kolegioko, espezialista eta ez-kualifikatuaren kolegioko eta hirugarren kolegioko hitzarmen kolektiboan horretarako akordiorik balego).

16.2.- Botuen %5ko botu-kopurua jasotzen ez duten kandidatek ez dute ordezkariarik

izateko eskubiderik (Kolegio bakoitzeko Baliozko botuak ulertu behar da) (LEko 71.2b art.).

16.3.- BALIOZKO BOTUEN KOPURUA BETE BEHARREKO POSTUEN KOPURUAGATIK zatitu ondoren geratzen den koziantea aurkitu behar da (kolegio bakoitzeko) (LEko 71.2b art.).

16.4.- KANDIDATURA BAKOITZEKO BOTU-KOPURUA zatitu egingo da (%5 baino botu-kopuru handiagoa jaso duenean) 3. apartaduan lortutako koziantearekin (kolegio bakoitzeko).

16.5.- Sobratzen diren postuak hondarrik handienak lortu dituzten kandidatei esleituko zaizkie (LEko 71.2b art.).

16.6.- Kandidaturan agertzen diren ordenean aukeratuko diran hautagaiak. (LEko 71.2c art.).

***ZEHAZTAPEN GARRANTZITSUA**

LEan eta RDNCEan hutsun asko nabari dira teknikari dagokionean.

Praktikan eman daitezkeen bi kasu ez dira aurrakusten:

1.- Zurian botu asko eman daitezkeela.

2.- %5a lortzen ez duten kandidatura batzuk izatea (LEak ez du esaten emandako botu guztiak diren, botu kunplimentatuak diren edo baliozko botuak diren).

Nola kasu batean hala bestean, kontutan hartzen baldin badira zurian emandako botuak edo %5a lortu ez duten kandidateen botuak, proportzioaren aldaketa handia emango litzateke 5. araua aplikatu balitz.

Hori dela eta LEak (LEko 71.2b) ordezkariatasuna proportzionaleko sistema ezartzen duenez, bi botu-mota horiek ez lirateke kontutan izan behar, banaketa proportzionala egiteko kontutan bakarrik hartuz %5a baino gehiago lortu dituzten kandidateen botuak.

1. Adibidea

Demagun enpresa batean 1.000 hautesle direla, 300 teknikari eta administrari kolegioan bildurik eta 700 espezialista eta ez-kualifikatuen kolegioan bildurik 21 ordezkari dagozkie.

Aurrez, AUKERATU BEHARREKO ORDEZKARI-KOPURUA ZEHAZTEAN HAUTESKUNDE-MAHAIAK erabaki behar izan zuen kolegio bakoitzean zenbait ordezkari aukeratu behar ziren, eragiketa matematiko erraz baten bidez lortu zuen:

$$\begin{array}{l} 1.000 \text{ --- } 21 \\ 300 \text{ --- } x \end{array} \quad x = 300x \ 21 = 6.300; 6.300 : 1.000 = 6,3$$

$$\begin{array}{l} 1.000 \text{ --- } 21 \\ 700 \text{ --- } y \end{array} \quad y = 700x \ 21 = 14.700; 14.700 : 1.000 = 14,7$$

Hondarrik handienak aplikatuz, honela geratuko litzateke:

- 6 ordezkari 1 Kolegioak (teknikari eta administrariak).

- 15 ordezkari 2 Kolegioak (espezialista eta ez-kualifikatuak).

Kontaketa globalean ondorengo emaitzak lortu dira:

1. ARAUA

Emaitzak kolegioka bilduko dira

KANDIDATURAK	1 KOLEGIOKO BOTUAK	2 KOLEGIOKO BOTUAK
A	100	310
B	75	105
C	10	50
D	80	100
Zurian emandako botuak	20	50
BALIOZKO BOTUAK GUZTIRA	285	615
Botu nulua	2	7
EMANDAKO BOTUAK GUZTIRA	287	622
Boturik ez dute eman	13	78
HAUTESLEAK GUZTIRA	300	700

2. ARAUA

C kandidatura 1. kolegioan postuen eslepenari dagokionez baztertuta gelditzen da baliozko botuen %5a baino gutxiago lortu dituelako.

3. ARAUA

Kolegio bakoitzarentzako kozianteak aurkitu, baliozko botuak zati bete beharreko postuak.

1 Kolegioa: $285/6 = 47,5$

2 Kolegioa: $615/15 = 41,0$

4. ARAUA

Kandidatura bakoitzak lortutako botu-kopurua aurreko koziantearekin zatiketa egin, horrela zati osoko koefiziente bat zati zatikitzailearekin lortzen dira.

Koefizienteen zati osoa hartuta, ondoren zehazten den bezala esleitzen dira postuak:

KANDIDATURA	1 KOLEGIOA	2 KOLEGIOA
A	$100/47,5 = 2,10$	$310/41 = 7,56$
B	$75/47,5 = 1,57$	$105/41 = 2,56$
C	—	$50/41 = 1,21$
D	$80/47,5 = 1,68$	$100/41 = 2,43$

KANDIDATURA	1 KOLEGIOA	2 KOLEGIOA
A	2	7
B	1	2
C	—	1
D	1	2
ESLEITZEKO	2	3

5. ARAUA

Geratzen diren postuak hondarrak handienak izan dituzten kandidatek lortuko dituzte, hori horrela izanik, behin betiko emaitza ondorengoa izango da:

KANDIDATURA	1 KOLEGIOA	2 KOLEGIOA
A	2	8
B	2	3
C	—	1
D	2	3
ORDEZKARIAK GUZTIRA	6	15

2. Adibidea

Demagun aurreko X enpresa bera Hauteskunde-kolegio banaketa berarekin (6 eta 15 ordezkari aukeratuz), nahiz eta emaitza ezberdinekin izan. Oraingo adibidean agerian jarri nahi da zuriar emandako botuak kontatzeak izan dezakeen ondorioa aipatu botu zuri horien kopurua handia denean. Errazteko eta sinplifikatzeko, aurreko adibidean emandako zenbait urrats ez ditugu emango, behin-betiko emaitzak emango ditugu bakarrik:

HAUTAGAI ZERRENDAK	1. KOLEGIOKO BOTUAK	2. KOLEGIOKO BOTUAK	ORDEZKARIAK 1. KOLEGIOAN	ORDEZKARIAK 2. KOLEGIOAN
A	60	100	1,2	2,14
B	100	-	2,0	
C	-	60		1,28
D	-	-		
Zuriak	140	540		
Botoak guztira	300	700		

1 Kolegioari zati osoarengatik ordezkari 1 A kandidaturari eta 2 B kandidaturari, 3 postu geratuko lirateke esleitzeke. Konponbidea ezin da izan hondarrik handiena duenari esleitzea (A kandidatura, 0,2rekin).

Gauza berdintsua gertatuko litzateke 2. Kolegioan.

Zurian emandako botu-kopurua hain handia denean onena kontutan ez izatea da emaitzen esleipena egiteko unean, horixe da egon daitekeen konponbide bakarra.

Dena den, ohartarazi behar da zurian emandako botu-kopurua hain handia izatea praktikan oso zaila dela; beraz, adibide honek kasu berezietarako bakarrik balioko du.

17.- KONTAKETA-AKTA ETA EMAITZEN ESLEIPENA EGITEKO MODUA

Kontaketa eta emaitzen esleipena egin ondoren, Mahaiak horri buruzko akta bat jaso beharko du eranskineko Ereduan (RDNCEko 5.9 art.).

Akta horretan jaso beharko dira erreklamazio eta gorabehera guztiak.

Hauteskunde-mahaiko Lehendakariak kontaketa-aktaren kopia bana emango die enpresariari eta kandidatura bakoitzeko interbentoreei, eta baita hautatutako ordezkari guztiei ere.

Botazioan izandako emaitzak iragarki-taulan jarriko dira (LEko 75.5 art.), kontaketa ondorengo 24 orduen barruan (1311/86 E.D.ko 10. art.).

18.- AKTAK ADMINISTRAZIOARI IGORTZEA

Aktaren originala eta botu nuluen edo interbentoreek inpugnatutakoen txartelak, mahaiaren eraketa-aktarekin batera, bertako Lurraldeko Lan eta Gizarte-Segurantzako Departamentuaren Delegazioan aurkeztu beharko dira hauteskundeak egin eta ondorengo 10 egun naturalen pean; Mahaiko Lehendakariak aurkeztu beharko ditu, baina Mahaiko beste kideren baten gain ere delega dezake ardura hori. EHKAtik kanpora epe hori hiru eguneko izango da.

Bulego Publikoak, hurrengo lanegunaren barruan akta horren kopia bat argitaratu beharko du iragarki-tauletan, hala eskatzen duten sindikatuei ere kopia bana emanez, eta enpresari berri emango dio bere bulego horretan delako akta hori aurkeztu dela esanez, inpugnatzeko epea zein egunetan bukatzen den seinalatuz, eta txartelen gordailua egingo du inpugnazio-epe horiek bukatzen diren arte.

Argitaratzen den egunetik hamar lanegun pasa direnean hauteskunde-aktak erregistratu egingo ditu ala ez.

Aktak Komisionan inpugnatzeko epea zazpi egun naturalekoa izango da, Lurralde-batzordeak berak aztertzen dituen egunetik kontatzen hasita. (Puntu hau EHKArako bakarrik ematen da).

Bulego Publikoak akta baten erregistroa ezetsi dezake baldin eta akta horiek:

- ez daudenean eredu ofizial normalizatuan eginda,
- erregistroko Bulego Publikoari hauteskunde-promozioaren berririk eman ez zaionean,
- Hauteskunde-mahaiko lehendakariaren sinadura falta denean,
- aktetan daturen bat falta edo irakurri ezin delako, hauteskunde-konputurik ezin denean egin.

Hautetako suposamenduren bat gertatzen denean, batzordeak hurrengo lanegunaren barruan, Hauteskunde-mahaiko lehendakariari errekerimendua egingo dio hamar laneguneko epe baten barruan egin dezan tokatzen den oker horren konponketa. Errekerimendu hori ordezkari tza lortu duten sindikatuei eta gainerako kandidatuei ere jakinaraziko zaie.

Okerra konpondu ondoren, Bulegoko Publikoak hauteskunde-aktaren erregistroa egingo du.

Epea bukatu eta okerra konpondu ez, edo behar bezala egin ez denean, Bulegoak erregistroa ezetsi egin beharko du hamar laneguneko epe baten barruan, ordezkartzaren bat lortu duten Sindikatu eta Mahaiko Lehendakariari horren berri jakinaraziz.

Erregistroaren ezespen horren arrazoia Bulego Publikoari aurreabisurik ez ematea izan denean, ezingo da egin okerraren konponketa-errekerimendurik.

Erregistroa ukatzeko ebazpen hori inpugnatu ahal izango da ordena jurisdikzional sozialaren aurrean.

HAUTESKUNDE-PROZESU BEREZIAK DITUZTEN SEKTOREAK

1.- MARINA MERKANTEA

Flota eratuko da mugape edo hauteskunde-unitate bakar bezala, kontuan hartu gabe untzien kopurua eta beren matrikula-erregistroa, enpresak 50 langile edo gehiagoko itsasuntziak dauzkanean salbu, kasu horretan langileek aukeratuko baitute beren Batzordea, gainerako itsasuntzi guztiekin batera hauteskunde-mugape bakar bat eratuz (1311/86 E.D.ko 17. art.).

Flota-batzordea

Enpresa bereko untzietako langileen ordezkaritza-organoa da, beti ere unti guztien artean 50 edo langile gehiago direnean. 50 edo langile gehiagoko untzirik balego, unti horretakoak euren buke-batzordea aukeratuko lukete eta gainontzekoek Flota-batzordea osatuko lukete (1311/86 E.D.ko 19. art.).

Hauteskunde-prozedura bera aplikatuko da, ondorengo salbuespenak kontutan hartuta:

- Hauteskunde-mahai Zentral bat eratuko da enpresaren egoitza sozialesan, bi urnarekin, bata Teknikari eta Administrarien Kolegiorako eta beste bat espezialista eta ez-kualifikatuen Kolegiorako.

- Hauteskunde-mahaia lehendakari bat (aintzinasunik handiena duen langilea) eta bi bokalekin (hauteslerik zaharrena eta gazteena, azken honek idazkari-lanak egingo ditu) osatuko da.

- Mahaiko kideak oporrak direla medio lehorrean dagoen pertsonalaren artean aukeratuko dira.

- Itsasoan dabiltzan langileen botazioa errazteko asmoarekin, itsasuntzi bakoitzean Mahai Lagungarri bat eratuko da, bi urnarekin: bata Teknikari eta Administrarientzat eta bestea Espezialista eta ez-kualifikatuentzat. Mahai lagungarri hauetako kide hauteslerik zaharrenak eta gazteenak izango dira.

- Mahai Lagungarrietako kontaketa-akta ahalik eta azkarren bidaliko zaizkio Mahai Zentralari, honek kontaketa globala egin dezan.

2.- ARRANTZUNTZIEN FLOTA

Hiru flota-mota bereizten dira:

2.1.- ALTURAKO ETA ALTURA HANDIKO FLOTA (itsasuntzi izoztaileak). Marina Merkanterako aurrikusitako hauteskunde-prozeduraren arabera eraenduko da hau.

2.2.- ALTURA ERTAINEKO FLOTA (gutxienez 21 eguneko barku-denbora izaten duena

batazbeste).

2.3.- BAJURAKO FLOTA (1etik 7ra bitarteko barku-egunak izaten dituena).

Altura Ertaineko eta Bajurako flota ondorengo hauteskunde-prozedura honen arabera eraenduko dira:

Altura ertaineko eta bajurako Arrantzuntzi-batzordea

(1311/86 E.D.ko 22. art.). Arrantzuntzi-batzordea enpresa bereko untzietan lana egiten duten langileen ordezkari-arganoa da, beti ere untzi guztietako langile-kopurua 50 edo gehiagokoa denean; 50 edo gehiagoko langile-kopururik duen untzirik balego, untzi horretan bukebatzorde propioa osatuko litzateke eta gainontzekoek flota-batzordea osatuko lukete, 1311/86 E.D.ko 17 art.an aurrikusten denaren arabera.

- Beren zerbitzuak portuan dauden itsasuntzietako iharduera lagungarrietan egiten dituzten langileek, kopuruz gutxi izateagatik beren ordezkariak aukeratzeko gai ez direnean, barkuetako langileekin batera hartuko dute parte hauteskunde-prozesuan.

- Flota-batzordea aukeratzeko, izaera bereko enpresentzako 1311/86 Erret Dekretu honetan aurrikusten diren arau berak aplikatuko dira.

- Enpresaren lokaletan Hauteskunde-mahai bat eratuko da bi umarekin, bata Teknikari eta Administrariaren Kolegioarentzako eta bestea espezialista eta ez-kualifikatuentzako. Mahaia lehendakaria, antzinatasunik handieneko langilea, eta bi bokalekin, hauteslerik zaharrena eta gazteena, osatuko da.

- Botazio-epea hogeita hamar egun naturalekoa izango da eta langile-ordezkariak aukeratzeko erabiltzen diren irizpide berek eraenduko dute, 21. art.

POSTA BIDEZKO BOTUA (RDNCEko 9.art.)

Posta bidezko botuaren eskubidea egikaritzeko, honako urrats hauek eman beharko dira:

1.- Hautesleak HAUTESKUNDE-MAHAIARI (EDO KOLEGIO-MAHAIARI) jakinarazi behar dio botua postaz emateko asmoa daukela.

Jakinerazpen hori egiteko epea, promozioa egin ondorengo egunean hasi eta botazioa egiteko data baino 5 egun (lanegun) lehenago arte izaten da.

MODUA:

- Interesatuak Hauteskunde-mahaiaren aurrean pertsonalki aurkeztutako idatzi baten bidez.

- Posta zertifikatuz, eta kasu honetan, hautesleak Posta-bulegoan aurkeztu beharko du idazkia sobre batean, itxi gabe. Idazki hori Postako funtzionarioak datatu eta zigilatu beharko dio, bidaltzen duenaren identitatea egiaztatu ondoren, eta gero sobrean sartu eta zertifikatu egin beharko du.

- Interesatua ez den beste pertsona batek idazki bat aurkeztuz Hauteskunde-Mahaiaren aurrean, ekintza horretarako AHALMEN NOTARIAL baten bidez kreditatua dagoela azalduz.

2.- Jakinerazpen horren berri jasotzean, Mahaiak egiaztatu egin beharko du interesatu horrek hautesle-baldintza betetzen duela, eta hautesleen zerrendan apuntatu beharko du botua postaz emateko eskaera hori.

3.- Mahaiak sobreak eta botu-txartelak bidaliko dizkio. Hala ere LABek bere aldetik enpresa bakoitzean bidal diezaizkieke beren kandidateretako sobreak eta txartelak botua postaz ematea pentsatzen duten guztiei..

4.- Hautesleak txartela BOTAZIO-SOBREAN sartu behar du, eta sobre hori itxi egin behar du. Gero, berriz, BOTAZIO-SOBREA N.A.N.ren FOTOKOPIAREKIN batera, neurri handiagoko BESTE SOBRE baten barruan sartzen dira, eta Hauteskunde-mahaiari bidaltzen zaio POSTA ZERTIFIKATU bidez.

5.- Mahaiak jasotako sobreak idazkariak gordeko ditu botazioa bukatu arte.

6.- Kontaketa egin aurretik, SOBRE zertifikatuak (KANPOKO SOBREAK) Lehendakariari entregatu behar zaizkio, eta honek ireki egingo ditu, hauteslea identifikatuz N.A.N.ren FOTOKOPIAREN bitartez, eta hauteslea zerrendan egiaztatuz botua postaz emateko asmo hori jakinarazita zegoela lehendik.

Lehendakariak urman sartuko du BOTAZIO-SOBREA (ireki gabe, botua sekretua da eta).

7.- Aurreko baldintza horiek betetzen ez dituzten posta bidezko botuak botu nuluztat hartu beharko dituzte LABeko interbentoreek.

8.- Botazioa bukatu eta gero jasotzen diren posta bidezko botuak ez dira kontatuko, eta erre egin beharko dira.

9.- Posta bidezko botua ematea aukeratu duen hautesleak hauteskunde-egunean bertan egotea tokatu eta botua pertsonalki ematea erabakiko balu, Mahaiari jakinaraziko lioke horren berri; Mahaiak, botu hori eman ondoren, postaz bidalitako beste botua entregatu beharko dio, sobrea iritsita baldin badago, eta iritsi gabe balego, berriz, etortzen denean erre egin beharko da.

HAUTESKUNDE-PROZESUAN EGINDAKO ERREKLAMAZIOAK

1) Legezko interesa duten guztiek inpugnatu ahal izango dituzte hauteskundeak, Mahaiak hartzen dituen erabakiak eta baita hauteskunde-prozesuaren bitartean Mahai horrek egiten duen beste edozein iharduketa ere, horretarako arrazoiak honako hauetan bilatuz:

a) hauteskunde-prozesuaren garantiak afektatu eta emaitzak asalda ditzaketen akats larriak daudela;

b) aukeratutako hautagaiek ez dutela gaitasunik edo legitimitaterik.

c) Desadostasuna dagoela aktaren eta hauteskunde-prozesuaren garapenaren artean;

d) korrelazio-falta dagoela hauteskunde-aktan azaltzen diren langileen kopuruaren eta aukeratutako ordezkarien kopuruaren artean. Hauteskunde-mahaiaren egintzen inpugnazioak eskatzen du aurretik erreklamazioa egin dela egintza egin ondorengo hurrengo lanegunaren barruan, eta mahaiak hurrengo lanegunaren barruan erantzun beharko dio horri, Lege honen 74.2 artikulua azkeneko parrafoan seinalatzen direnetan salbu.

2) Hauteskunde-gaietako inpugnazioak, inskripzio-ukapenetakoak salbu, ondorengo arbitraia honen arabera izapidatu beharko dira:

a) Laneko agintearen menean dagoen bulego publikoari hauteskundeak sustatu zituenari eta, kasua denean, inpugnazio-gai diren hauteskunde horietara hautagaiak aurkeztu dituztenei zuzendutako idazki bat eginez hasiko da. Idazki horretan inpugnatu nahi diren egintzak azalduko dira eta honako epe honen barruan aurkeztu beharko da:

2.a.1) 3 lanegunen barruan, egintzak gertatu ziren dataren hurrengo egunetik kontatzen hasita.

2.a.2) 3 lanegunen barruan, erraklamazioa ebatzi zen dataren hurrengo egunetik kontatzen hasita, hau da, hauteskunde-mahaiaren egintza bat inpugnatzen deneko suposamenduan, erreklamazio hori egitea obligaziozkoa dela gertatzen denean.

2.a.3) Inpugnazio hori hautagairik aurkeztu ez duen Sindikatu batek egingo balu, 3 lanegun, egintza inpugnagarria ezagutzen den egunetik kontatuta.

2.a.4) Botazioaren eguneko eta geroagoko egintzak inpugnatzen baldin badira, 10 lanegun, aktak bulego publikoak sartzten direnetik kontatzen hasita.

Lan-agintearen menean dagoen bulego publikoak idazki horren bidalketa egingo dio arbitroari, hartu ondorengo lanegunean, hauteskunde-espeditente administratiboaren kopia bat ere bidaliz. Hauteskunde-aktak erregistroan sartzeko aurkeztuta baleude, eten egingo dira izapidetzak.

Hurrengo hogeita lau orduren barruan, arbitroak beregana deituko ditu alderdi interesatuak, eta ondorengo hiru lanegunen barruan egin beharko da deialdi hori. Alderdi horiek, izendatutako arbitro horren aurrera etorri baino lehen, artikuluko hiru hiruaren zenbakian ezarritakoaren arabera, adostasun batera etorri eta beste arbitro ezberdin bat izendatuko balute, lan-agintearen menean dagoen bulego publikoari jakinarazi beharko diote horren berri, honek arbitro berri

horri bidal diezaion hauteskunde-espeditante administratiboa, eta berarekin jarraituko da prozedura guztia.

Arbitroak, bere aurrera aurkezten direnetik hurrengo hiru lanegunen barruan, bere baitan lantegian pertsonalki azaltzea eta enpresariari eta administrazio publikoei behar den laguntza sar dezaketen legearen arabera proba egokien praktika egin ondoren, laudoa emango du.

Prozedura arbitrala eta, kasua denean, ondorengo inpugnazio judiziala bukatzen ez den bitartean, geldi geratuko da beste edozein prozedura arbitral berrien tramitazioa. Arbitraiaren planteamenduak eten egingo ditu preskripzio-epeak.

Laudoa idatzia eta arrazoitua izango da, eta zuzenbidearen arabera ebazpen bat emango du hauteskunde-prozesuaren inpugnazioari buruz eta, kasua denean, baita aktaren erregistroari buruz ere, eta interesatuei eta bulego publikoari emango zaie horren berri.


Botazioa inpugnatu izan balitz, bulegoak aktaren erregistroa egin ala ukatu egin beharko du, laudoak zer esaten duen kontu.

Laudoa inpugna daiteke ordena jurisdikzional sozialean.

EHKAREN markoan eta Konfederazio Sindikalen batzordeetan sortutako desadostasunak konpontzeko asmoarekin, bertan presentziaren bat zuten Konfederazio Sindikalek beren artean ados jarri eta arbitro bana aukeratu beharko dute Lurralde Historiko bakoitzetik eta Komunitate Autonomo osorako beste arbitro bat, bakoitza berari dagokion eremuan sortzen diren gatazketan eskuduna izango delarik.

- 1994ko uztailaren 15a baino lehen sindikatuak ez baldin badira arbitroak izendatzeko ados jartzen, Lan eta Gizarte-Segurantzako Sailak aukeratu ditu.

Beheran sinatzen duten Konfederazio Sindikalek artikuluko honetan araututako arbitraia-prozedura onartzeko konpromezua hartzen dute bere gain, Segimendu eta Kontrol Batzordeetan sortzen diren desadostasun guztiak konpontzeko; arbitroen erabakiak apelaezinak izango dira beti eta, beraz, konfederazio sinatzaileak behartzen dira beste ondorengo ebazpide batzuetara ez jotzera.



Paper Birziklatuan inprimatua.
Dep. Legal: BI- 1785-94

GESTINGRAF
Cº. de Ibarsusi, 3.
48004 Bilbao.



A R G I T A R A P E N A K

DONOSTIA. 20011.

Zorroaga pasealekua 7, entreplanta

Tlfnoa: (943) 46 47 33